**Esp.kodea:** 2011CHOZ0007

**Gaia:** Akordio markoa ordenagailu eta pantailak erosteko
**Hasiera eguna:** 2011/03/04

## JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzen eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

**“Arrasateko udalarentzat mahai gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak eta pantailak hornitzeko esparru akordioa”: esleipen proposamena.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Kontratazio Mahaiaren ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“ARRASATEKO UDALARENTZAT MAHAI GAINEKO ORDENAGAILUAK, ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK ETA PANTAILAK HORNITZEKO ESPARRU AKORDIOA” kontratatzeko prozedura irekiaren kontratazio-mahaia 2012ko azaroaren 9an bildu zen, aurkeztutako eskaintzen proposamen ekonomikoak irekitzeko.

Onartutako eskaintzak hauek izan ziren:

| Titularra | Prezioa BEZ gabe | BEZ (%18) | Prezioa BEZ barne |
|---|---|---|---|
| MONTTE S.L. | 108.652,00 € | 19.557,36 € | 128.209,36 € |
| TELBASK S.L. | 116.665,20 € | 20.999,74 € | 137.664,94 € |
| IBERMATICA S.A. | 117.981,96 € | 21.236,75 € | 139.218,71 € |
| SS HARD S.L. | 108.396,16 € | 19.511,31 € | 127.907,47 € |
| SERMICRO S.A. | 111.923,28 € | 20.146,19 € | 132.069,47 € |
| INYCOM S.A. | 113.164,88 € | 20.369,68 € | 133.534,56 € |
| XAREHERIZ S.L. | 115.589,00 € | 20.806,02 € | 136.395,02 € |
| TECNOCOM S.A. | 108.861,20 € | 19.595,02 € | 128.456,22 € |
| IZERTIS S.L. | 119.036,86 € | 21.426,63 € | 140.463,49 € |

Aldiz, ondorengo eskaintza ez onartutzat eman du Kontratazio Mahaiak:

| Titularra | Prezioa BEZ gabe | ARRAZOIA |
|---|---|---|
| SAREIN SISTEMAS S.L. | 122.340,04 € | Lizitazio prezioa gainditzen du |

Udal Informatika Zerbitzuak egindako txostenaren arabera, hauxe da aurkeztutako proposamen desberdinek "**hobekuntzak**" atalean jasotako puntuazioa:

| LIZITATZAILEAK | HOBEKUNTZAK PC NORMALAK | HOBEKUNTZAK MAILA HANDIKO PC | HOBEKUNTZAK ERAMANGARRIAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| **MONTTE S.L.** | 10 | 6 | 4 | **20** |
| **TELBASK S.L.** | 10 | 6 | 4 | **20** |
| **IBERMATICA S.A.** | 1 | 0 | 0 | **1** |
| **SS HARD S.L.** | 10 | 6 | 4 | **20** |
| **SERMICRO S.A.** | 9 | 2,5 | 4 | **15,5** |
| **INYCOM** | 8 | 0 | 4 | **12** |
| **XAREHERIZ S.L.** | 9 | 6 | 4 | **19** |
| **TECNOCOM S.A.** | 8 | 2,5 | 4 | **14,5** |
| **IZERTIS S.L.** | 1 | 2,5 | 1 | **4,5** |

Ikusirik Zerbitzu Teknikoek egindako txostena, aurkeztutako "hobekuntzak" aztertzen dituena, eta, bestetik, prezioari dagozkion puntuak batuta, eskaintzen sailkapena hau izan zen:

| | | 1.- Kontratuaren prezioa | 2.- Hobekuntzak | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| 1 | SS HARD S.L. | 80,00 | 20 | **100** |
| 2 | MONTTE S.L. | 79,81 | 20 | **99,81** |
| 3 | TELBASK S.L. | 74,33 | 20 | **94,33** |
| 4 | TECNOCOM S.A. | 79,66 | 14,5 | **94,16** |
| 5 | XAREHERIZ S.L. | 75,02 | 19 | **94,02** |
| 6 | SERMICRO S.A. | 77,48 | 15,5 | **92,98** |
| 7 | INYCOM | 76,63 | 12 | **88,63** |
| 8 | IZERTIS S.L. | 72,85 | 4,5 | **77,35** |
| 9 | IBERMATICA S.A. | 73,50 | 1 | **74,50** |

KONTUAN IZANIK kontratua egiteko eskaintza ekonomikorik onenak SS HARD, S.L., MONTTE S.L. eta TELBASK S.L. etxeek egindakoak deklaratuz, Alkatearen 2011ko azaroaren 22ko erabakiaren bitartez eskatu zitzaiela behin betiko garantia eta dokumentazio osagarria ekartzea.

Lizitatzaileek behin betiko bermea jarri eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, kontratua sinatzea eta haren adjudikazioa erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko abenduaren 19an

KONTUAN IZANIK kontratuak bere sinadurarako 3 etxeei bidalita, SS HARD, S.L. eta MONTTE S.L. etxeek hura sinatu dutela; aldiz, TELBASK S.L. etxeak ez du kontratua sinatu, eta idatzi bat aurkeztu du kontratuari uko eginez, eta adiearaziz ezinezkoa zaiola aipatu kontratua betetzea.

KONTUAN IZANIK Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko urtarrilaren 30eko akordio bidez, erabaki duela ontzat ematea TELBASK S.L. etxeak egindako eskaera, uko eginez, eta Esparru Akordioa sinatzeko proposatzea sailkapeneko laugarren geratu zen etxeari, hau da, TECNOCOM S.A. etxeari.

KONTUAN IZANIK Kontratazio Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 26an, proposatu zuela "ARRASATEKO UDALARENTZAT MAHAI GAINEKO ORDENAGAILUAK, ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK ETA PANTAILAK HORNITZEKO ESPARRU AKORDIOA" egiteko 4. eskaintza ekonomikorik onena "TECNOCOM S.A." enpresak egindakoa deklaratzea, eta errekeritzea hamar egun baliodunetan behin betiko bermea jartzeko eta beharrezkoa den dokumentazio gehigarria emateko.

Ikusirik 2012ko otsailaren 1ean Alkateak aipatu errekerimendua egitea erabaki zuela, eta 2012ko otsailaren 13an enpresak behin betiko bermea jarri zuela, 6.100,00 €-koa, eta eskatutako agiriak aurkeztu dituela.

Guzti hori ikusirik, ondorengo proposamena egiten du Kontratazio Mahaiak:

I.- "ARRASATEKO UDALARENTZAT MAHAI GAINEKO ORDENAGAILUAK, ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK ETA PANTAILAK HORNITZEKO ESPARRU AKORDIOA"n, 4 urteko iraupenarekin, "TECNOCOM S.A." enpresa izendatzea, eta hortaz, 3 enpresa hauek osatuko dute esparru akordio hori:

1. SS HARD S.L.
2. MONTTE S.L.
3. TECNOCOM, S.A..

II.- TECNOCOM etxeari jakinaraztea, adjudikazioaren jakinarazpen hau jaso eta hurrengo hamabost egun baliodunetan Udaletxean agertu beharko duela administrazio agirian kontratua sinatzeko.

III.- Adjudikazio honen iragarkia kontratistaren profilean eta Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea.

*Adierazten dizut, jakinarazten dizugun akordioaren edo erabakiaren aurka, behin betikoa dena administrazio bidean, AUKERABIDEKO izaeraz BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkeztu ahal izango duzula, Administrazio Auzigaietakoa aurkeztu aurretik, HILABETEko epean jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo zuzenean aurkeztu ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO ERREKURTSOA Donostiako Administrazio Auzigaietako Epaitegian, BI HILEKO epean jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.*

*Hori guztia egin ahal izango duzu, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109 c), 116, 117 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan, eta Administrazio Auzigaietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.*

*Eta hori, kontuan harturik bidezkotzat jotzen duzun beste edozein egintza edo errekurtso aurkeztu ahal izango duzula.*

Arrasate, 2012ko otsailaren 23a

IDAZKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga

MONTTE, SL
Polig.Industrial , 10
20200 BEASAIN

TELBASK, S.L.
PADULETA , 55 OFICINA 110-111
01015 GASTEIZ

IBERMATIKA
Pº MIKELETEGI , 5
20009 DONOSTIA

SS.HARD-GRUPO VERSIA
PI INBISA PABELLON 20 B
48510 VALLE DE TRAPAGA

SERMICRO
Heliodoro de la Torre , 5
48014 Bilbao

INYCOM-INSTRUMENTACION Y COMPONENTES SA
IBAIZABAL BIDEA , 207 Esk.C PARQUE TECNOLOGICO DE ZAMUDIO
48170 DERIO

XARE
REKALDE
DONOSTIA

TECNOCOM TELECOMUNICACIONES Y ENERGIA SA
AVDA MADARIAGA , 1
48014 BILBO

IZERTIS SL
P TCO ZONA INTRA AVDA. JARDIN BOTANICO , 1345 jtrigo@izertis.com
33203 GIJON

SAREIN
Ribera de Axpe , 11 - C2. Polígono AXPE – ERANDIO
48950 ERANDIO